

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ONDARE ZERBITZUA

Lizitazio publikoa alokatzeko, lehiaketa bidez, lokal bat Vitoria-Gasteizen bizimodu independenterako bulegoa jartzeko

649/2022 Foru Aginduaren bidez, azaroaren 7koa, lehiaketa bidezko lizitazio publikorako deialdia onartu da, bizimodu independenterako bulego gisa erabiliko den lokal bat alokatzeko Vitoria-Gasteizen. Erabaki horretan, halaber, lehiaketa arautuko duten baldintzen pleguak onartu dira, eta horien funtsezko edukia honako hau da:

1. Deialdiaren xedea: bizimodu independenterako bulego gisa erabiliko den lokal bat alokatzea Vitoria-Gasteizen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikiko zaiona.
2. Lizitazio mota: hilean 750 euro, BEZa eta komunitate-gastuak barne.
3. Kontratuaren iraupena: bi urte; urtez urte luzatu ahal izango da.
4. Bermea: lizitazioan parte hartzeko, 1.000 euroko behin-behineko fidantza eratu beharko da.
5. Baldintzen plegua: interesdunek eskuragarri dute honako helbide hauetan:
 - Ondare Zerbitzua (Samaniego kalea 14-4. solairua, Vitoria-Gasteiz).
 - Arabako Foru Aldundiaren webgunea: www.araba.eus.
6. Eskaintzak aurkezteko lekua: Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra (Probintzia plaza 5-behea, Vitoria-Gasteiz). Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.
7. Eskaintzak aurkezteko epea: hogei egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, epea amaitzen den eguneko 14:30ak arte, salbu eta jaieguna bada, orduan hurrengo egun balioudunera arte luzatuko baita.

Iragarki hau 2022ko azaroaren 16an argitaratuko da; beraz, epea 2022ko azaroaren 17an hasiko da eta 2022ko abenduaren 7an bukatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 7a

Ondare Zerbitzuaren burua
LUIS ALBERTO VALDOR FERNÁNDEZ